donostiakultura.com



POLTSIKO
# ANTZERKIA TEATRO
DE BOLSILLO

**EDICIÓN XXII EDIZIOA**
**MAIATZA 2-19 MAYO 2013**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN



# GUNE AKES PACIOS

**Altxerri** (Erdialdea/Centro)
Reina Regente, 2

**Antxon Aiestaran Kultur Gunea** (Añorga)
Avenida Añorga, 54

**Ardube** (Loiola)
Monte Ernio, 8

**Atabal** (Amara)
Eustasio Amilibia, 6

**Beti Boga** (Egia)
Ametzagaina, 14

**Bukowski** (Egia)
Egia, 18

**Darieta Irish Bar** (Altza)
Arriberri, 7

**Doka** (Antiguo)
Errege zain, 20

**El Muro** (Sagüés - Gros)
José Miguel Barandiarán, 26

**El Nido** (Altza)
Avda. Alcalde José Elosegi, 130

**El Parque** (Intxaurrondo)
Baratzategi trasera, s.n.

**Etxarriene** (Martutene)
Elenategi, 2

**Garai** (Antiguo)
Juan de Garai, 2

**Itsas-Aurre Kultur Etxea** (Igeldo)
Igeldo plaza, 4

**Jatetxe Makrobiotikoa** (Intxaurrondo)
Intxaurrondo, 52

**Kontadores** (Bidebieta)
Avenida Pasajes San Pedro 13, bajo

**La Taberna** (Egia)
Virgen del Carmen, 45

**Lau** (Amara)
Salud, 4

**Salt** (Gros)
Avda. Navarra, 2

**Sidi-Kauki** (Intxaurrondo)
Paseo Sagastieder, 18

**Vía Fora** (Amara)
Federico García Lorca, 10



# LAS TORPEDOLEVEL

## DE LO CHINO A LO VASCO

**2 /** Osteguna - Jueves, **20:30**
**Sidi-Kauki,** Paseo Sagastieder, 18 (Intxaurrondo)

**3 /** Ostirala - Viernes, **20:00**
**Lau,** Calle Salud, 4 (Amara)

**9 /** Osteguna - Jueves, **21:00**
**El Muro,** José Miguel Barandiarán, 26 (Sagüés – Gros)



Superlamita eta Txikibuda Tibeteko bi emakumezko super heroi dira, Chi Kung Unibertsitatean lizentziatuak, eta Mendebaldera bidaliko dituzte euren ezagutzak probatu eta kezkatzen gaituzten zenbait arazo konpontzera: pobrezia, auto-ilarak edo gorputzarekiko kultua.

Euskadin abiatuko dute bidaia, eta denbora laburrean euskal kultura bereganatzen saiatuko dira. Mandarin-txinerak ez du euskararekin inolako antzekotasunik, baina, guztiz animatuta, euskaltegian emango dute izena. Euskal txinatarrak ere atsegin dituzte eta gizonezkoen tipologiari buruzko azterketa egingo dute. Baina politikari buruz hitz egiterakoan, Tao Te Kingen ikasitako guztiak ez die ezertarako balio izango… Iritsiko al dira lama horiek Euskadiren berezitasunak ulertzera?

Superlamita y Txikibuda son dos súper heroínas tibetanas licenciadas en la Universidad de Chi Kung a las que envían a Occidente para poner a prueba sus conocimientos y solucionar algunos de los problemillas que nos acucian: la pobreza, los atascos de tráfico o el culto al cuerpo.

Su viaje empieza en Euskadi, donde intentarán asimilar la cultura vasca en tiempo récord. El chino mandarín no se parece en nada al euskera, pero ellas se apuntan animadas a un euskaltegi. Tampoco los chinos vascos les desagradan y harán un estudio de la tipología masculina. Pero al tocar el tema de la política, todos lo aprendido en el Tao Te King no les vale para nada… ¿conseguirán estas lamas entender la peculiaridad de Euskadi?



# PATXI SANTAMARIA

## AKTIBO TOXIKOA

**3 /** Ostirala - Viernes, **20:00**

**Jatetxe Makrobiotikoa** Intxaurrondo, 52 (Intxaurrondo)



Hor dator “Bat”, Bat Jauregi. Bere maleta eta guzti, jendearen artetik azaltzen da. Han irrifar bat, begirada triste bat hemen, maletan darama arima. Pailazo bat?, mimo bat?, klown bat?… guzti hori bada ere, pertsona da…

Bat Jauregi politikaria izandakoa da. Erretirua hartutako gizasemea. Bankuak etxetik bota eta kale gorrian utzi du. Krisiak bete betean harrapatu du, baina ez dago geldirik egoteko prest. Ez du nahiko kanpaldi, konzentrazio edo “indignados” talde bat osatzea. Berak beste zerbait antolatu du.

Eta horretarako konbokatu gaitu, bere ekitaldian parte hartzeko… denok aktibatzeko¡¡¡

Aquí llega “Bat”, Bat Jauregi. Surge entre la gente con su maleta, donde lleva su alma, mientras va mostrando una sonrisa por aquí, una mirada triste por allá. ¿Es un payaso?, ¿un mimo?, ¿un clown?… aunque es todo eso, es también y sobre todo una persona.

Bat Jauregi fue un político y ahora está retirado. El banco le ha echado de casa y ahora mismo se ha quedado sin nada, en la calle. La crisis le ha dado de lleno pero no está dispuesto a quedarse quieto. No quiere tomar parte en ninguna acampada, ni concentración ni en ningún grupo de “indignados”. El tiene pensado otra cosa.

Y para ello nos convoca a participar en su acción… ¡para activarnos a todos y todas!



# ZE ONDA

## MIKRO-UHINA

**3 /** Ostirala - Viernes, **22:30**

**Jolas Etxea** Avenida Añorga, 54 (Añorga)



Matilde zapaten bilduma egiten duen energiaz beteriko neska da. Tristan orduak liburuetan murgilduta igarotzen dituen gaztea da.

Tristan eta Matilde ezkondu eta denbora gutxira beren bizitzak guztiz hankaz gora jarriko dituen gertaera gogor batekin egingo dute topo: Adele, Tristanen arreba txikia, bizitzaz mozkorturik, hil egiten da. Hau izango da abiapuntu Tristan irteerarik gabeko zulo sakon eta beltz batean hondoratzeko.

Nola aldatzen du depresioak pertsona baten bizitza? Eta pertsona honen aldamenean dauden pertsonena?

Matilde es una chica llena de energía a la que le apasiona coleccionar zapatos. Tristán es un joven que pasa sus horas sumergido en los libros.

Tristán y Matilde se casan y al cabo de poco tiempo han de hacer frente a un acontecimiento que pondrá sus vidas patas arriba: Adele, la hermana pequeña de Tristán, una joven embriagada por la vida, muere. Este es el punto de partida hacia un agujero negro y profundo, sin salida, en el que Tristán se ve inmerso.

Esta obra trata de los cambios que puede producir la depresión en la vida de una persona y en la vida de las personas que conviven con ella.



# KHEA ZIATER

## SATISFAKTION

**4 /** Larunbata - Sábado, **20:00**
**Kontadores** Avenida Pasajes San Pedro, 13 (Bidebieta)

**5 /** Igandea - Domingo, **19:30**
**Doka** Errege zain, 20 (Antiguo)

**19 /** Igandea - Domingo, **20:00**
**Bukowski** Egia, 18 (Egia)



Euskarazko formatu txikiko antzerki sorkuntza eta ekoizpena bultzatzeko sortu den Poltsiko Sorkuntza programaren aurtengo edizioaren irabazlea da Khea Ziater taldearen Satisfaktion lana.

Kriss eskarmentudun aktoresa da, urteak daramatza mota guztietako lokaletan bere obrak antzezten. Orain dela gutxi, haurdun zegoela eta, arrakastara zuzenean eramango zuen proiektu bati ezetza eman behar izan zion, zuzendari ospetsu baten pelikulako protagonista izateari alegia. Gaur bere berragerpenaren eguna da eszenatoki gainean, errepresentatu gabe gelditu zen prostitutaren pertsonaiari bizitza emanez.

Satisfaktion del grupo Khea Ziater, es la obra ganadora de la edición de este año del programa Poltsiko Sorkuntza, cuyo objetivo es impulsar la creación y producción del teatro en pequeño formato en euskera.

Kriss es una actriz experimentada, lleva años representando sus obras en locales de todo tipo. Recientemente ha tenido que decir que no a un proyecto que la hubiera catapultado directamente a la fama a causa de su embarazo, y renunciando así a ser la protagonista de la película de un director reconocido. Hoy es el día de su reaparición en el escenario, dando vida así al personaje de prostituta que no llegó a representar.



# ZUHAITZ GURRUTXAGA

## CONFIDENCIAS DE UN FUTBOLISTO

**5 /** Igandea - Domingo, **20:00**
**Via Fora** Federico García Lorca, 10 (Amara)

**9 /** Osteguna - Jueves, **21:00**
**La Taberna** Virgen del Carmen, 45 (Egia)

**16 /** Osteguna - Jueves, **20:30**
**Kelly's** Nafarroa Behera, 3 (Gros)



Zuhaitz Gurrutxaga, Erreala, Rayo Vallecano edo Real Union taldeetan aritutako futbolariak, eskenatokietara egin du jauzi eta “Confidencias de un futbolisto” bakarrizketa aurkezten du..

Hainbeste urtetan politikoki zuzena izan ostean, bere kirol ibilbidean izandako bizipenak kontatzen ditu zeharo lotsagabe.

Entrenatzaile ezagunez, taldekide eta adiskideez, maitasunaz, desamodioez, eginiko bidaiez, garaipenik gozoenez edo eta porrotik  gazienez aritzen da ordu eta laurdeneko saioan.

Zuhaitz Gurrutxaga, futbolista, ex de la Real Sociedad, Rayo Vallecano y Real Unión entre otros, presenta el monólogo titulado “Confidencias de un Futbolisto”.

Tras muchos años siendo políticamente correcto, esta vez cuenta anécdotas y peripecias vividas a lo largo de su carrera deportiva, tanto dentro como fuera de los terrenos de juego.

Con la única promesa de decir la verdad,  toda la verdad, y nada más que la verdad, hablará de goles, expulsiones, entrenadores, amistades, viajes, éxitos, fracasos, amores y desamores.

# TXUS BLUES & JOSE BLUEFINGERS

## EL BLUES DE LA COMEDIA

**4 /** Larunbata – Viernes, **21:00**
**La Taberna** Virgen del Carmen, 45 (Egia)

**5 /** Igandea - Domingo, **20:00**
**Altxerri** Reina Regente, 2 (Erdialdea)





Hamar urtetik gora penintsula osoan zehar jotzen ibili eta bost disko argitaratu ondoren, bi musikariok berezko estilo berezia sortzea lortu dute.

Eurek egindako konposizioez gain, blues, rock edo beste edozein estiloren estandarra blues akustikoa oinarri duen formatu bilakatzen dute. Tangoekin, narcorridoekin edo bururatzen zaien musika ororekin ausartzen dira, eta ironiaz betetako hitzak bizitasun handiz eraldatzen dituzte, irribarre konplizetik hasi eta barre-algara eragiten duen umorearekin.

Tras más de diez años tocando por toda la península y con cinco discos publicados, estos dos músicos han conseguido crear un estilo propio y muy particular.

Amén de sus propias composiciones, reconvierten cualquier estándar del blues, rock, o cualquier otro estilo a un formato que parte del blues acústico. Se atreven con tangos, narcocorridos o cualquier cosa que se les ocurra, y todo transformando ingeniosamente unas letras que desprenden ironía, un sentido del humor que te arranca desde la sonrisa cómplice hasta la carcajada.

# DETRITUS TEATRUS

## JHONY & JANE

**9 /** Osteguna - Jueves, **20:00**
**Garai** Juan de Garai, 2 (Antiguo)

**12 /** Igandea - Domingo, **20:00**
**Bukowski** Egia, 18 (Egia)




Jhony Vinilo rock&roll kantaria da, bere kontzientziak atsekabetzen du eta ikuskizunaren mundua utziko duela iragartzen du. Jane bakarrik dago, bere emozioen etengabeko balantzen konplize bilakatuko den publikoaren aurrean. Sufritzeaz nazkatuta, Jhonyrekin izandako porrota ikuskizun berri bilakatzea erabakiko du, eta barruan daraman Errauskine hankaz gora jarriko du.

Komedia honek gure inkontzientean ditugun mito, heroi eta ereduen gainbeheraz hitz egiten digu. Rock&Rollaren mundua, muturreko rolak eta itxura erakargarria eta ustez liberatua agertzen duena, zalantzan jartzen du Detritus Teatrus taldeak.

Jhony Vinilo, cantante de rock&roll, atormentado por su conciencia, anuncia su retirada del mundo del espectáculo. Jane está sola ante un público que será cómplice de sus continuos bandazos emocionales. Harta de sufrir, decide que su fracaso con Jhony sea su nuevo espectáculo, desmontando la cenicienta que lleva dentro.

Esta comedia nos habla de la caída de los mitos, héroes e ideales que permanecen en nuestro inconsciente. Detritus Teatrus cuestiona el mundo del Rock&Roll, con sus roles extremos y con su apariencia atrayente y supuestamente liberada.




# HNOS. BOLINGA

## PUESTOS EN LIBERTAD

**10 /** Ostirala - Viernes, **20:00**

**Etxarriene** Elenategi, 2 (Martutene)



Ikuskizun honek bizitzaren alderdi basatienean bizitzera ohituta dauden bi pertsonaien bizipen zentzugabeak kontatzen ditu. Bizitzaren zaleak, patetikoak eta kutunak, minik egiten ez duten hiltzaileak dira, eta porrot baten eta bestearen artean, bide berri bat bilatzen saiatzen dira. Barre eta algararen bidez, edozein auzotan aurki daitezkeen galtzaileen bidaia, xalotasuna eta bizitzeko gogoak erakusten dizkigu.

La Piel de Toroko (Alcalá-Maco, Martutrena, Perrera de la Mancha...) plaza nagusietan bira indartsua egin ostean, Bolinga Anaiak **"Puestos en Libertad"** askotariko ikuskizunarekin datozkigu. Gizarteak beste bigarren aukera bat eskain diezaiekeela erakusteko prest dira. Laster, auzoko narkoaretoan, antzerkiaren eta talde terapiaren arteko proposamena, ikuskizun sorgorgarria, askatasunari omenaldia!!!

Este espectáculo cuenta las esperpénticas vivencias de dos personajes acostumbrados a vivir por el lado mas salvaje de la vida. Dos adictos a vida, patéticos y entrañables, inofensivos asesinos que intentan buscar un nuevo camino entre fracaso y fracaso. Es un viaje que desde la risa y la carcajada nos muestra a esos perdedores que hay en cada barrio, su inocencia y sus ganas de vivir.

Después de una intensa gira por las principales plazas de La Piel de Toro (Alcalá-Maco, Martutrena, Perrera de la Mancha...) llegan los Hnos. Bolinga con su espectáculo de variedades **"Puestos en Libertad"**. Dispuestos a demostrar que la sociedad puede ofrecerles otra segunda oportunidad. Próximamente en la narcosala de su barrio una propuesta a caballo entre el teatro y la terapia de grupo, un espectáculo estupefaciente, un homenaje a la libertad!!



# MAY GOROSTIAGA

## PRESENTE!!!

**11** / Larunbata - Sábado, **22:00**

**Atabal** Eustasio Amilibia, 6 (Amara)



Heldutasunera inoiz heldu nahi duen haur bat ateratzen da eszenatokira. Ordutik aurrera, dena dago idazteko, dena dago egiteko. *Publikoa* izeneko autore handi horren laguntzarekin, agerraldiak bata bestearekin kateatuz doaz, ezustean. Inspirazioari, inprobisazioari, eta batez ere, uneko magiari esker, ikuskizuna idazten den bitartean antzezten da, eta antzezten den bitartean idazten da. Ea nola azaltzen zaion hori SGAEri.

Un niño que nunca quiso ser mayor sale a escena... A partir de ese momento todo está por escribir. Con la inestimable ayuda de ese gran autor llamado *público*, las escenas se van encadenando de forma imprevisible. La inspiración, la improvisación, y sobre todo la magia del momento hacen que este espectáculo se represente mientras se escribe y se escriba mientras se representa. A ver cómo se lo explicamos a la SGAE...



# SINÓNIMOS FLAMENCOS

## EL SÍNDROME DE STENDHAL PIEZA Nº 9

**10 /** Ostirala - Viernes, **20:00** y **21:00**
**El Parque** Baratzategi trasera, s.n. (Intxaurrondo)

**11 /** Larunbata - Sábado, **11:30** y **12:30**
**Salt** Avenida de Navarra, 2 (Gros)

**11 /** Larunbata - Sábado, **20:00** y **21:00**
**Altxerri** Reina Regente, 2 (Erdialdea)



Stendhalen Sindromea gaixotasun psikosomatikoa da eta bihotzeko erritmo altua, bertigoa, nahasmendua eta haluzinazioak ere sortzen ditu norbanakoa edertasun artistikoaren gaindosiaren eraginpean dagoenean.

Flamenkoari erabateko errespetua eta ezagutza erakutsita beti eta haren jatorria aberastuz, Sinónimos Flamencosek dantza flamenkoaren egitura klasikoa hartzen du abiapuntu gisa, soleá por bulerías izenekoa, eta bere proposamenean pentsaezineko eremu batera darama, armairu baten barrualdera.

Zenbait mugimendu egitea ezinezkoa denez, behar bezala adierazi ahal izateko, beste mugimendu batzuk sortzen dira, klasikoen berdinak edo interesgarriagoak. Elementu eszenikoak gidatzen du prestakuntza, tradiziozko eskuila, erremate, markatzeekin... probatu eta horiek espazioaren mugetara egokitzeko.

El Síndrome de Stendhal es una enfermedad psicosomática que causa un elevado ritmo cardíaco, vértigo, confusión e incluso alucinaciones cuando el individuo es expuesto a una sobredosis de belleza artística.

Siempre desde el más absoluto respeto y conocimiento del flamenco, y enriqueciendo su raíz, Sinónimos Flamencos parte de una estructura clásica en la danza flamenca, la soleá por bulerías, y la traslada a un entorno insospechado, el interior de un armario en su propuesta.

Al impedir ciertos movimientos, por una cuestión de necesidad expresiva, surgen otros que son igual o más interesantes que los clásicos. El elemento escénico guía a la formación para experimentar desde las tradicionales escobillas, remates, marcajes… y poder adaptarlas a las limitaciones del espacio.



# OH MY GOD!
## ZER DUZU AMY?

**11 /** Larunbata - Sábado, **20:00**
**Kontadores** Avenida Pasajes San Pedro, 13 (Bidebieta)

**17 /** Ostirala - Viernes, **20:00**
**El Nido Avenida Alcalde José Elosegui, 130 (Altza)**

**19 /** Igandea - Domingo, **19:30**
**Itsas-Aurre Kultur Etxea** , Igeldo plaza, 4 (Igeldo)



Leire Uchak eta Natxo Gomesek sortutako lan honek Poltsiko Sorkuntzaren bigarren edizioa irabazi zuen, 2012an.

Dasyk edozein gauza egingo luke Amy Winehousen ahotsa eta talentua izateko. Baina bere ahotsa arrunta da, bere itxura arrunta da, eta bizitza  ere arrunta du.

Amyren heriotzaren berri izan duenean, maleta hartu eta Londresera abiatu da, Edgwareburyko kanposantura. Amyren hilobiaren parean galdetzen dio ea zergatik ez zen zoriontsu, sekulako ahotsa zuen eta!?… Amyk ez dio erantzun, ez da posible ahots hori betirako isilik egotea… Dasyk zerbait egin behar duela pentsatzen du…

Esta obra, creada por Leire Ucha y Natxo Gomes, ganó la segunda edición de Creación de Bolsillo en euskara.

Dasy haría cualquier cosa para tener la voz y el talento de Amy Winehouse. Pero su voz es corriente, su imagen es corriente y su vida, también, es corriente.

Cuando se entera de la muerte de Amy, coge su maleta y se dirige a Londres, al cementerio de Edgwarebury para preguntarle a Amy por qué no fue feliz, cuando tenía una voz maravillosa… Amy no le responde, no es posible que se quede callada para siempre… Dasy piensa que tiene que hacer algo al respecto…

# BARRY BARREZ & BALTZISKUETA

## EUSKALDUNA NAIZ ETA ARRAROA NAGO!

**16 /** Osteguna - Jueves, **20:30**
**Beti Boga** Ametzagaina, 14 (Egia)






Barry Barrezek eta Baltziskuetak hiruna bakarrizketa saio eskaintzen dizkigute. Umorea oinarri, euskaldun izatearen eta euskaldun jokatzearen ondorioen gainean arituko dira bi antzezleak. Horretarako, Euskaraz Bizitzearen esperientzia kontatzen dute bi umoregileek ordu beteko saio honetan.

Barry Barrez y Baltziskueta nos ofrecen una sesión de monólogos con tres intervenciones cada uno. Basándose en el humor, estos dos monologuistas nos presentarán las consecuncias de ser euskaldun y de actuar como tal. Para ello, estos dos humoristas nos contarán la experiencia de vivir en euskara durante aproximadamente una hora.



# RIKI LÓPEZ

## BUENRROLLITINA

**17 /** Ostirala - Viernes, **20:00**
**Ardube** Monte Ernio, 8 (Loiola)

**18 /** Larunbata - Sábado, **20:00**
**Darieta Irihs Pub** Darieta bidea, 7 (Altza)

**19 /** Igandea - Domingo, **20:00**
**Altxerri** Reina Regente, 2 (Erdialdea)



Riki Lópezen ***Buenrollitina*** bere neurona-patinaje artistikoaren ondorioz sortu da eta egilearen ezaugarri diren gau-filosofia hiritarraz, xumetasunez eta egiazkotasunaz beteta dago. Bertan bai ile- bai hizkuntza-alopezia duen gizon honek bere abesti boteretsuak bakarrizketa barregarri eta galezinekin tartekatzen ditu.

Guretzat erabat gertukoak diren egoera arrunt eta intimistak Rikiren lanaren testuingurua osatzen dute. Ez dago kakahuete bakar bat ere txitxik gabe. Aireportuko mojaren antzera, doinuetaz baliatzen da bere testuak garraiatzeko. Barrea denbora pasa dadin jolastokirik onena dela aintzat hartuz, ez dugu besterik aurreratuko.

Cargado de la nocturna filosofía urbana, la sencillez y la autenticidad que caracterizan a Riki López, fruto de su efervescente patinaje artístico neuronal, nace su espectáculo, ***Buenrollitina***. En él, este hombre con alopecia, tanto capilar como lingüística, entrelaza sus explosivas canciones con unos desternillantes monólogos que no tienen desperdicio.

Situaciones cotidianas e intimistas con las que no cuesta ningún esfuerzo identificarse son el telón de fondo en el que Riki hace su trabajo. Ni uno solo de sus cacahuetes viene sin chicha. Como una monja en el aeropuerto, utiliza las melodías para transportar sus textos. Teniendo en cuenta que la risa es el mejor patio de recreo que existe para que fluya el momento, no contaremos más.

| | ALTZA | AMARA | EGIA | INTXAURRONDO BIDEBIETA | LOIOLA-MARTUTENE | ANTIGUO-IGELDO | GROS | ERDIALDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2** osteguna | | | | SIDI-KAUKI<br>Torpedo Level<br>DE LO CHINO A LO VASCO<br>20:30 | | | | |
| **3** ostirala | | LAU<br>Torpedo Level<br>DE LO CHINO A LO VASCO<br>20:00 | | JATETXE MAKROBIOTIKOA<br>Patxi Santamaria<br>AKTIBO TOXIKOA<br>20:00 | | AÑORGA kultur etxea<br>Ze onda<br>MIKRO-UHINA<br>22:30 | | |
| **4** larunbata | | | LA TABERNA<br>Txus Blues & Jose Bluefingers<br>EL BLUES DE LA COMEDIA<br>21:00 | KONTADORES<br>Khea Ziater<br>SATISFAKTION<br>20:00 | | | | |
| **5** igandea | | VÍA FORA<br>Zuhaitz Gurrutxaga<br>CONFIDENCIAS DE UN FUTBOLISTO. 20:00 | | | | DOKA<br>Khea Ziater<br>SATISFAKTION<br>19:30 | | ALTXERRI<br>Txus Blues & Jose Bluefingers<br>EL BLUES DE LA COMEDIA<br>20:00 |
| **9** osteguna | | | LA TABERNA<br>Zuhaitz Gurrutxaga<br>CONFIDENCIAS DE UN FUTBOLISTO. 21:00 | | | GARAI<br>Detritus Teatrus<br>JHONY & JANE<br>20:00 | EL MURO<br>Torpedo Level<br>DE LO CHINO A LO VASCO. 21:00 | |
| **10** ostirala | | | | EL PARQUE<br>Sinónimos flamencos<br>EL SÍNDROME DE STENDHAL PIEZA Nº9<br>20:00-21:00 | ETXARRIENE<br>Hnos. Bolinga<br>PUESTOS EN LIBERTAD<br>20:00 | | | |
| **11** larunbata | | ATABAL<br>May Gorostiaga<br>PRESENTE!!!<br>20:00 | | KONTADORES<br>Oh my god!<br>ZER DUZU AMY?<br>20:00 | | | SALT<br>Sinónimos flamencos<br>EL SÍNDROME DE STENDHAL PIEZA Nº9<br>11:00-12:00 | ALTXERRI<br>Sinónimos flamencos<br>EL SÍNDROME DE STENDHAL PIEZA Nº9<br>20:00-21:00 |
| **12** igandea | | | BUKOWSKI<br>Detritus Teatrus<br>JHONY & JANE. 20:00 | | | | | |
| **16** osteguna | | | BETI BOGA<br>Barry Barrez & Baltziskueta<br>EUSKALDUNA NAIZ ETA ARRAROA NAGO! 20:30 | | | | KELLY'S<br>Zuhaitz Gurrutxaga<br>CONFIDENCIAS DE UN FUTBOLISTO. 20:30 | |
| **17** ostirala | EL NIDO<br>Oh my god!<br>ZER DUZU AMY?<br>20:00 | | | | ARDUBE<br>Riki López<br>BUENRROLLITINA<br>20:00 | | | |
| **18** larunbata | DARIETA IRIHS PUB<br>Riki López<br>BUENRROLLITINA<br>20:00 | | | | | | | |
| **19** igandea | | | BUKOWSKI<br>Khea Ziater<br>SATISFAKTION. 20:00 | | | IGELDO KULTUR ETXEA<br>Oh my god!<br>ZER DUZU AMY? 22:30 | | ALTXERRI<br>Riki López<br>BUENRROLLITINA 20:00 |

ytantos
5.000 ale ejemplares 0,34 € ale bakoitza unidad